

Urte eta hamarkada berria, JAKIN aldizkarian, ohitura dugunez, *Historia bizia* elkarrizketa biografiko-soziografiko-historiografiko luze batekin abiatu dugu, eta honako honekin dagoeneko hogeita hiru kulturgilek utzi du orriotan bere bizipen eta memoriaren zati bat. Xabier Amurizak oraingoan. Elkarrizketara ekarri dugu eta, aurreko hogeita biak bezala, ispiluaren aurrean jarri dugu. Amurizaren bizitza eta pentsamenduaren errepaso pertsonalak Euskal Herriko historiaren berri ematen digu, sail honek helburu duen bezala. Xabier Amuriza bertsolari eta idazleari elkarrizketa ugari egin izan zaizkio, baina honako honek badu berezitasun kasik determinante bat, ispilua aurrean jarri dion elkarrizketatzailea ispiluaren beraren parte den bat baita: Miren Amuriza.

Amuriza Amurizaren aurrean. Amuriza bere buruaren aurrean, hark bizi izandakoaren aitzinean. Amuriza Amurizaren aurrean. Amuriza aita eta Amuriza alaba, elkarri begira: bi belaun, bi bertsolari, bi idazle; adinekoa eta gaztea, gizona eta emakumea. Biak galde-erantzunean, elkarrizketan, memoria harilkatzen, bizitzaz pentsatzen, izandakoa gogoetatzen, datorkeena begitantzen, eta, tarteka, baita ezbaian ere. Amuriza eta Amuriza begiz begi jarri dira, eta begirada partekatu horretatik bestelako geruza eta kolore batzuk ikusi ahal zaizkio memoriaren mapari. Eta mapa bat ilustratu du Unai Iturriagak, kontrazalean, Amurizaren *obabaren* geografian barrena ez galtzeko.

Xabier Amurizaren historia engaiamendu historia bat da, bistan da. Eta engaiamenduaz hizketan jarri ditu Miren Rubio JAKINEKO kazetariak, berriki burutu duen lan akademiko batetik abiatutako artikuluan, Harkaitz Cano, Eider Rodriguez eta Kirmen Uribe. Orain berrogei urte idazle konprometituaren auziak kultur munduan zuen zentralitaterik ez du egun; baina auzia hor dago, besteak beste errelatuaren borroka betean bizi garen honetan. Hor jarri du begia Rubiok, eta konpromiso artistiko, sozial eta kultural-linguistikoa bere egiten duten hiru idazle horien pentsamenduarekin berritu du auzi zahar-berria.

Egunen gurpilean atalean, Itziar Ugartek kulturak kritikotasuna aktibatzeko duen gaitasuna eta ezina han eta hemengo kultur

ekimenetan ikusi du; ertzez, ertzen ertzez eta ertzen erdiguneaz ari da Jaime Altuna; eta Alba Garmendiak gorputza, bizitza eta utopia eta heriotza galdera ikurrez –agian berrituz teknologiaren aurrean– ari zaigu. Hamarkada berriak ere kartografiak eskatzen dizkigu.